


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

174n. Zenbakia Orrilla
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



JAKAKORTEARENAREN'TAR TXOMIN
1906-1993

- ABADEA TA GUDARIEN KAPELLAUA
- ERBESTEAN 40 URTE
- ITZULTZAILLE TA IDAZLE TREBEA
- ERLEZAINZAN JAKINTSUA

TARTALO ETA POLIFEMO

Tartalo euskalduna da ala Grezia'tik ekarritako Polifemo?

Alkarrekin zer ikusirik ote dute?

Homero'k bere Odisea'n, bear bada elandar folkloretik artua, Ziklopeak aitatzen ditu eta, auen buru zan, Polifemo. Artzaiak ziran eta begi-bakarrak, bekokiaren erdian zeukaten begi ori. Polifemo eta bere artzaiek, Ulises'en lagun batzuen kaltean ibilli ziran. Polifemo'ren koban sartu eta Ulises'ek zuzi batekin begi bakar ura zulatu zion.

Gure Tartalo ere artzaia zan Polifemo eta lagunek bezala.

Piztiak jaten ditu, berez eiztaria ere bada; baiña, ezta piztiekin bakarrik konforme eta gizakirik arrapatu ezkerro... Polifemo eta bere lagunek egiten zutena egiten du Tartalo'k ere.

Alde bat bada bien artean: euskalerrri-yakintzak beste zer-edo-zer geiago jartzen dio Tartalo'ri: eraztuna, alegia.

Greko edo elandarren artean badira eraztun-ipuiak ere, Giges'ena esate baterako: erregea zan eta eraztun baten jabe. Eraztuna beatzean ipiñi ezkerro, iñork ezin zuan ikusi bere itxura. Tartalo'ren beatzean ipiñi ezkerro, iñork ezin zuan ikusi bere itxura. Tartalo'ren eraztunak "emen nago, emen nago" garraxi egiten du.

Polifemo eta Giges'en ipuiak batzen ditu Tartalo'k.

Biak batean.

Tartalo erri-yakintzaren emaitza degu.

Euskalerrrian sortua?

Kanpotik ekarria?

Kanpotik bada, noiztik da?

Tartalo'ren ipuia, eta izena, Zegama'koa da osotuena.

Zegama'tik igarotzen dan bide zaarrak, erromatarren garaikoak, zer-ikusirik ote du ipui onekin?

Izan lei.

Galtzara eta bide-zaar oietatik kultura-gai asko sartu zan Euskalerrietan. Euskalerrriak, askoek ala ez usten arren, oso zabaldu izan dautsez bere ateak mundu zabaleko kultura guztieri. Orregaitik nik ez nuke ukatuko Tartalo'k elandar erri-yakintzakin zer-ikusirik duenik... Baiña, ala balitz ere, bi milla urtetik gorako artu-emanak dira. Beraz, Tartalo (txapela, pelota eta fedea bezala) Euskalerrriko mami eginda dago, bere jatorria kanpokoa izan da ere.

Esana daukagu Tartalo Zegama'koa dala, bertako Sadar mendian bait dago Tartalo-etxea deritzan triku-arri edo dolmen bat: Tartalo'ren bizi-lekua.

Tartalo artzaia zan; baiña, piztiak ere arrapatzen zituan jateko, eta eskuartearen izan ezkerro, gizakiak ere bai. Begi-bakarra zan. Beiñ bi anai gazte arrapatu omen zituan eta bere leizean gorde. Arratsaldean, su andi bat piztu eta bi anaietatik bat erre zuan apaltzeko. Besteai, "emen nago, emen nago" deadar egiten zuan eraztuna jarri zion beaztean. Ondoren loak artu zuan gure Tartalo.

Bizirik zegoanak, estutasunak larriturik, burrunzia sutan gorritu ondoren begi bakar artatik sartu zion. Tartalo itsu gelditu zan, baiña ez ilda, eta mutillaren billa asi zan.

Tartalo'k ardi-narruak zituan pillo aundi bat eta aien artean izkutatu eta gorde zan gure mutilla. Tartalo'k etxeko ateak eragin eta ardi-narruak atera zituan barrutik, mutillaren billa. Onak bere burua etxeatarien ikusi zuanean, ekin dio mendian bera. Baita aren atzetik Tartalo ere, eraztunaren deadarretara. Mutillak, larritasun artan, beazta ebagi eta ur-putzura bota zuan. Baita Tartalo'k bere burua, eraztunaren deietara... Eta an ito.

Bada Ataun'en beste ipui bat Zegama'ko onen antzekoa; ez berdiña.

Jentil baten istorioa da. Mutilla, berriz, "kristaua" zan eta ez dago burrunzirik. Beste guztiak antzekoak dituzu.

Bada beste ipui bat Mutriku'n. Mutillak, ordea, itsasotik etorri ziran. Tartalo'ren izenik ez da, artzai begi-bakarra zala baizik. Burrunzia bada; baiña, eraztunik eta putzurik, ez.

Kortezubi'ko ipuia Mutriku'aren bezelakoa da.

Zegama'koa da ipuirik osatuena; beste guztien gaiak berak alkartzen ditu ipui bakar batean. Eta badu onak zaarra danen antza. Ara zegaitik: Tartalo artzaia zan; baiña, piztiak ere arrapatzen zituan. Ez zan artzaia bakarrik; eiztaria ere bai. Eiztarien aroa zaarragoa da artzaiena baiño.

Tartalo'k bere sorrera Euskalerrrian izan ez badu (nik eziñ esan); millaka urteetan gure artean bizi izan da. Ori bai, badakit.

ANES (1970)

JAKAKORTEARENAREN'TAR TXOMIN ABADENA

EUSKERAZALEA TA ABERTZALEA

Oraintsu joan jaku gure artetik Jakakortexarena'tar Txomin abadea, benetako euskerazalea eta abertzalea.

Euskerazalea, emen eta erbestean euskerearen maitasuna zabaltzen alegin aundia egin ebalako eta euskeraz asko eta ondo idatzi ebalako. Euskera garbia erabiltea zan bere gurari bizia eta orrek eraginda bear ba'da, batzutan bere euskerea ulergaitz biurtzen da.

Eta abertzalea. Gure aberria arerioen eskuetara jausteko arriskuan ikusi ebanean, abadea izan arren, guda arriskutsuak ori eskatzen ebalako, ez eban bildurrik izan eskuetan izkilluak artu eta aberriaren alde jokatzeko. Gero urteetan gudarien kapellau izan zan.

GUDA-GIROAN

Berastegi'n jaio zan Txomin 1906n. urtean eta Gasteiz'ko Abadegai-etxe barrian amaitu ebazan ikasketak. Berastegi bere errian egin eban Meza barria 1932'ko Gorpuzti egunean.

Urte bi egin ebazan abade-lanean Araba'ko Salmanton erritxuan. Guda-aurrean urte bi egin ebazan Nafarrate erritxuan, Bizkai'ko mugatik naikoa urrean eta oraindiño orduan euskeraz berba egiten eban erritxuan. Urte oneitan euskera lantzeko abade-talde bat batzen zan Gasteiz'en eta Txomin euren artean, baiña emen guda sortu zan eta lan orreik alde batera itzi-bearra izan zan.

Gure Txomin Nafarrate'n edo inguruan atxillotu eben arerioak, baiña gudariak askatasuna lortu eben beretzat eta Araba gudalostea emon eban bere izena.

ERBESTERA

Bilbao'ko umeakaz Santander'etik Prantzira joan zan 1937'an.

Prantzian Larzabal eritxon abade ospetsu baten laguntzaille izan zan urtebetean eta 1940'an Ameriketara joan zan.

Ameriketean bere amets bakarra erri txiki baten abade izatea zan, eta naizta ardura aundiagoko lana eskiñi ango gotzainak, azkenean lortu eban bere elburua eta Monez Kazon erritxuan asi eban bere lana.

AURRERAPENA

Txomin'ek erritxu au aurreratzen alegin aundia egin eban, ez, beste barik, Jesus'en barria emonda, baita munduko gauzetan aurrerapidea eskiñita be.

Eta erria aurrera aterateko bide berezi bat eskiñi eban: erlezaintza. Arlo onetan trebe biurtu zan, baita liburu eder bi gai oneri buruz idatzi be.

Kardaberaz Bazkunak argitaratu dauz bere lan oneik eta, entzun dogunez, azken urteotan bizitzan bi goiasmo erderatzen ebillan, Ameriketako erritxuan ori eskatu eutsoelako, ortik ondorena atera eta aurrerapide barriak lortzeko.

Jakakortexarena'tar Txomin'ek beste lan eder bat egin eban Ameriketean: Argentina'ko liburutik zarrena, "Martin Fierro" euskeratu, idazpurua "Matxin Burdin" ezarrita.

Orain ogei bat urte artu genduan "AGUR" aldizkarian itzulpen orren barria eta asko poztu giñan barri ori jakiteaz. Izan be "Matxin Burdin" liburua interesgarria da, antxiña gautxoen bizitza jakiteko eta entzuna dogu baita, erderaz idatzia dan liburu orretan agertzen diran esaldi asko euskeratik artuak edo euskeran sustertuak dirala, zalantza barik emendik joandako euskaldunen eta gautxoen artean artu-emonak izan ziralako.

Lan arriskutsuak eta aztergarriak egin ebazan abade euskaldun onek izan dagiala betiko zoriona, Aitaren Etxean.

EUSKEREA

MAILLEGO-ITZAK

Izkuntza guztiak daukez maillego-itzak, "presta-muak", antxiñakoak naiz oraintsukoak.

Izen ori emoten dautsegu izkuntzaren barrutik ber-bea, dan lakoa edo pizkaren bat aldatuta artu barik, beste izkuntza batetik artzen dogunean. Esaterako "maillego-itza" euskeratik artu dogu, baiña "presta-mua" erderatik.

Arazo au argitu nai genduke idaz-lan labur onetan.

IZKUNTZA GUZTIAK

Asikeran argi ta garbi esan dagigun, izkuntza guz-tiak artzen dabezela maillego-itzak eta gaur egun lena-go baiño geiago, berba asko laterri-artean zabalduak diralako eta trebebidetakoak ugari erabilten diralako.

Inglesak berak, esaterako, euneko larogei baiño geiago erabilten dauz maillego-itzak, geienak latiñetik edo erroma-antzeko izkuntzetatik artuak.

GURE KONDAIRAN

Euskereak itz asko daukaz beste izkuntza batzutatik kondairan, urteen joanean, artuak, geuk uste dogun baiño asko geiago: Zelten itzak, latiñetik artuak, erro-ma-antzekoetatik artuak, arabiarrenak, bisigodoenak...

Baiña ez dagigun uste izan inglesaren besteko sendotasuna daukagula eta arek artu dauzan beste itz artu geinkezala. Ez. Euskerea il egingo litzake edo beste iz-kuntza baten euskalki biur-tuko litzake.

Baiña aztertu dagigun gaurko egoerea.

KATXABA-ITZAK

Katxaba-itzak esaten dautsegu asko erabilten diran eta esangurarik ez dauken itzai, Erabilten ba'dira ez da bestetarako zalantzan gagozenezan laguntzeko katxaba lez baiño, esaterako "bueno" ainbeste bider esaten do-gunean.

Olako itz batzuk antxiñatik artuak ditu euskereak, esaterako "bien que", "sikeran be", "aunke sea", "o sea que" eta abar.

Olako itzak gaur be sartzen dira eta ain sarri erabil-ten diralako, euskereari bere antza kentzen dautsoe:

Zergaitik esaten da ainbeste bider "bale" eta ez "eder-to"? Zergaitik ainbeste "bueno" eta ez "ea ba-da" edo antzeko zerbait, "ederto" bera? Edo "igual", "Klaro", "Joe" "Hombre".

BEAR DIRANAK

Itz batzuk artu bearko dira gaur be, oso trebebidetakoak diralako edo euren ordezkoa euskeratik sortzea gaitza dalako, esaterako "ozono". Baiña nok jakin zeintzuk diran artu bear diranak? Arazo gaitza da au eta euskerearen zaindi edo zaintzak onetan lan aundia egin bear leukee.

ARTU BEAR EZ DIRANAK

Euskereak beti artu dauz erderatik artu bear ez diran itzak, esaterako erriak "bentanea" esaten dau, ez iñoz be "puertea". Zergaitik? Antxiñako artzain-txabolak leiorik ez eukelako? Edo leio ta bentanea gauza bat bera ez diralako?

Eta asko dira olako itzak, euskeran itz jatorra izan eta erderatik artzen diranak.

EUSKERAZAINTZA'REN LANA

Azterketa oneik egiteko oso egokia da igaz Euske-razaintza egiten asitako lana: Euskaldun jatorrai entzun eta kutxatilla edo kasetetan artu alkar-izketak. Gero idatzi orri batzutan eta azterketa egin. Or ikusten da zeintzuk diran egokiro artutako itzak eta zeintzuk artu bear ez diranak. Orrelan lan aundi bat egin lei, euske-reak barrutik agertuta daukan arerio au alboratzeko.

Ba-ditu kutxatilletan artze orrek beste elburu batzuk be, baiña au ez da txikiena.

Alegindu gaitezan gure euskera ondo zaintzen, obe-tzen eta aberastuten.

OLAZAR' TAR MARTIN' EK

ZAINDU DAIGUZAN IZADIA ETA INGURU-GIROA

Izadia eta inguru-giroa ondo zainduta eukitea ezinbestekoa jaku gure eguneroko bizitza ondo joatea gura badogu. Ori dala-ta ainbeste garrantzi emoten dautsegu bioi. Ori ta guzti be, egunotan ikusten dogu, kezka aundiz, zelan ondo babestu bearrean, gero ta erasoaldi geiago egiten diran euren aurka, guztien zoritxarrerako.

Eta orrek, ez euki ezpairik, kalteak baiño ez dautsaz ekarriko gure bizimoduari eta, batez be, gure osasunari.

Orain dala denbora gitxi, mezu-bideetan ikusi al izan dogu zelan Mexiko, uriburua, Erroma eta Madrileko agintariak neurri bereziak artu bear izan dabean kutsaketa dala-ta. Onek jasan eitekezan muga guztiak gaindituak zitun eta.

Gauza jakiña da, azken aldiotan aurrerapen aundiak ezagutu dauzana gure gizarteak eta asko onerako izan dirala esan bear. Baiña, ba dagoz beste batzuk be ain onuragarri ez doguzanak.

Ola edo fabrika ugari sortu dira edonun eta orreitan, geienetan beintzat, sortzen dan zikinkeria dana kanpora botaten da. Eta sarritan ibai edo mendietara doa zikinkeria guzti ori. Bestela or dozue Durangoko Ingi-ola edo Papelera. Ikusi zelan itzi dauan bere ondotik igaroten dan ibaia.

Orrez gain, beste leku batzuk jasan eta jasaten diardue izadiaren aurkako erasoaldi izugarriak:

Mendiak. Oituraz, mendiak beti izan doguz arnas garbi ta osasuntsua artzeko toki berebizikoak. Zugaitzen artean, larretan, zelai orlegietan eta mendi ton-torretan, bertako bakea, urietatik iges egin gurarik.

Azken aldiotan, ostera, euren itxura asko aldatu da eta ez onerako ain zuzen.

Gero ta sarriago jazoten dira sute ikaragarriak bertako tokietan. Batzutan, jendearen zabarkeriz (zigartxoak amatau barik iztea, adibidez), baiña beste asko, tamalez, baten batek eragiñak izan dira, diru etekiñak lortzearren, batzutan, edo su-zaleak diralako bestetan.

Edozelan be, kasu biotan, ondorioa bardiña da: ain maitatua dogun izadia guztiz kaltetuta geratzea. Luzaroko, gaiñera. Zugaitzak barriri azi daitezcan denbora asko bear dabe. Eta eurak barik, mendiak

basamortu baten antza artzera asiak dira. Ez da arri-tzekoa, beraz, toki asko guztiz legortuak ikustea. Orra emoitz ederra!!

Itxasoak.— Emen be, larritu egin jaku egoera. Azken denboretan, errialde batzutako itxas-ontziak ondakin arriskutsu ta kaltegarri beteta, euren zama ixurtzen daragoioe itxasoetan. Ondakin orreik kimi-koak eta nuklearrak izaten diran lez itxas-bizitzari ekarri leikioezan kalteak izugarriak izan leitekez: eriotza eta ondamen osoa. Olan jarraitu ezker, itxasoak izan bearrean illerri atomikoak baiño ez dira izango, bizitza barik.

Eta gai oneri lotuta, beste adibide bat aitatu nai neuke: Amazonia. Leku oneri "Munduaren Birikia" deituten jako. Berton, izadia eta inguru-giroa bere izate utsean dalako.

Baiña, onaiño eldu gurarik dabil gizakia eta zertara doan gogoan artuten badogu, ez dau emoten onerako izango danik. Antza danez, "Multinacional" batzuk euren gauzak eta produktuak ara elduarazo gure dabez eta orretarako zer egin? Gauza erreza. Amazonia ondatu eta "zibilizaziñoia" sartu. Orra or Amazoniaren geroa.

Zorionez, apurka apurka, arazo onen larritasuna zabalduz doa jente arrunta eta jakitunen artean. Izadi eta inguru-girozale taldeak sortzen asiak doguz eta munduan zear ugaritzen joakuz. Orrein artean, "-GREENPEACE" alkarteak dogu.

Arazo eta ostopo ugari aurkitzen dabez euren bi-dean, diruak almen aundia daukolako eta zalantza barik, denbora luzea bear izango da zeozer lortutze-ko.

Edozetara be, izadi eta inguru-giroa aldeztuteko orduan, lan ori norberegandik asten da eta bakoitxak ori bereganatu ezker urrets aundia emona izango da.

Egia esateko, ori guztien mesedean izango da. Eta nork ez dau ori gura?

1993ngo Epaillaren 25an.

MALAX-ETXEBARRIA TAR YON

TXOLDIIN JAKAKORTAJARENA

1906 urtea aberatsa izan zan, urte argia, euskal literaturan ezagutuko ziran maisuen sortzetan.

Urte aretakoak doguz,

Ramon Argarate, urretxuarra.

Iñazio Berakoetxea, "Aita Eustasi", bilbotarra.

Plazido Mujika, urnietarra, euskal iztegi mamitsu eta ugarien gertutzaille eta idazlea.

Juan Thalmas Lanbandibar, beobitarra, Pikabea eta Fagoaga ospetsuekin batean "Gernika" aldizkariaren sortzaillea.

Balendin Enbeita Goiria, muxikarra, Kepa "Urre-txindorra" zanaren seme bertsolari txapelduna.

Joakin Zaitegi, arrasatearra, olerkari saritua eta bere sormeneko "Euzko Gogo" bitartez olerkarien kandela biztuta zaintzea lortu ebana.

Erramon Murua, ordiziarra, euskal idazle zuur eta itzultzaille trebea.

Gallastegi tar Kauldi, Bilbao'ko San Anton'go eleiz buru argi, biozkor eta adoresua. Elorriotarra.

Iñaki Barriola donostiarra, osagille argi eta euskal antzerkien idazle bikaiña.

Eta Martiaren 27'an bere sorterri izan zan Berastegi'n azken agurra egin dausagun Txomin Jaka-Kortaj arena.

Larogei ta zazpi urte jaio ziralta, batzuk beteta, besteak aurten urteak beteteko. Euretatik bat edo beste bizi da. Baiña geienak agur egin euskuen.

Azkena, "don Txomin" ek" egunotan.

Txomin Jaka-Kortajarena abade izan zan. Nabarrete'n egoan guda sortzean. Gero "Araba" gudataldeko mutillen zaindaria. Eta gero... askoren bidea, erbestea eta urandiak igaro ta Ameriketara. An Batetik bestera ibili, Argetina'n geratu eta ango Monez Cazon erri beartsu bat aukeratu bere lanetarako. Lan eta lan bertan, bizirik ez eukan erritxo aretan, erria fedean sendotu eta giza bidean aukera barriak erakusten. Gaur, Txomin'eri esker eta berak erakutsita, erri erle zaintzatik bizi da eta bertakoak ezin dabe aztu euskal abadeak eurei egin eutsen era guztietako mesedea.

Txomin'en gazte aroko euskal olerkiak ezagunak dira. Bat aipatzeko "Amandrearen ollo aldra" bizi bizia.

Ameriketa'n ez eban bastertu euskerea An euskeratu eban eta argentinarrak biotzez eskertu eutsoen, eurentzat 1872 urtean Jose Hernandez'ek argitaratu eban Martin Fierro'ren epopeia gogoangarria, "Matxin Burdin" euskal deituregaz.

An argitaratu eban baita Euskera Erdera iztegi bat.

Txomin'en ardura zan beti euskerarentzat ez dago itzulpenerako eziñekorik eta origaitik euskeratu zitun lan sakon batzuk. Esateko RH ezezkorra euskaldunetan'eta abar eta Erleei buruzko liburu mardul bi idatzi.

Igazko urtea osasunez makal asi eban, biotzeko abaila geiegian abiazi yakolako; alaz eta adorez idatzi eustan: "Or dezute Saralegiren Naparroako guda edestia, benetan illeak erlazten dituan edestia, Orain Arabakoa zuzenduxe dut irarkoletatik eta ori bukatuta zuenari ekingo diot, Españaiko espetxe guztietako edestia, eta orrela ikusieren dute gure ondorengo gazteak guk nola iokatu genduen eurek arabide ori artzeko. Orrela anai gudaren lau erkietako edesti bikaiña eskutetan izango dute ondorengoak".

Beste liburu bat, ederra bera, "Bizitzan Bi Goiasmo" berak euskeraz idatzia, erderaz jarri eta eurei bialtzeko eskatu eutsen Argentinako bere eleiztar izan ziranak. Zertarako? Ain zuzen Txomin berberak asitako zarren gaxotegien etxeondoa amaitu nai ebelako ortik atarateko itxaropena eukan diruagaz. Eta bere kartan iñostan: "nire azken lan ori izango da Jaunak onartu duan txartela bialtzen ba dit".

Eta ain zuzen bat bateko gaixoak jo eta il danean, azken zazpi orrialde bakarrik falta ziralta erderatzeko eta nok egin izendatu eta bake-baketan il zan.

Orrelakoxeak izan dira euskal idazle eta abadeak. Guk ezin ukatu eurei gure begiramen, esker on eta irakatsi jatorrik.

AUGUSTIN ZUBIKARAI
("Deia"tik artua)

EMILE LARRE

EUSKARAZKO ASTEKARIRIK ZARRENAREN ZUZENDARIA

Emile Larre baigorriarrak etxea eta sorterrria izan zituen euskara ikasteko eskolarik onena. Eta Uztaritzeko apaiz-gaitegian Piarres Lafitterekin topo egin zuenean konturatu zen zerbait bazekiela: "etxeaz eta nire erriaz beste irakaslerik ez izanez, bear ukan dut egun batez oartu eta niaurk sinetsi, ots, kontzientziatu, zerbait banekiela, ez bainuen uste, nire erriarrek berek uste ez duten bezala, zerbait banekiela".

Lafittek, bere kontura euskara lantzen laguntzen zien apaizgaiei idazlan bat egitea eskatu zien. Emile Larre suertatu zen irabazle, "ez latin, ez griego, ez erdara, ez matematikan lena" zen baigorriarra. "Aldiz or ni" oartu zen sari ari esker. "Geroztik, kontzientzi artze orren ondotik, aski ukan dut neure erri onen maitatzen eta ezagutzen ikastea, aukera guztiez baliaturik: Eskualtzaleen Biltzarra, bere sariketa eta jai bereziekin, "Herria" astekaria, seminarioko lagunak, Xarriton, E? Bidegain, Hiriart-Urruty, J. Camino, J. Irigoien, J.B. Etxarren eta abar".

Seminariotik kanpora, Urruñan apaiz izan zenean, Larzabal eta Elissalde idazle azkaingarrekin eta Mattin, Xalbador, Uztapide eta Basarri bertsolariarekin egin zuen topo bere euskaltzaleatasuna indartzeko eta euskara aberasteko. Eta etxean eta seminarioan, "Herria" beti bidelagun zenez, ura irakurriz eta astekarirako lantxoak edo bertsoak bidaliz jarraitu zuen euskara obetzen.

KAZETARITZARI URBILTZEN

Ogei urtetarik goiti joan zitzaizkion Emile Larreri Piarres Lafitte irakasle oiarekin beste arremanik izan gabe. Eta laguntza bear izan zuenean ere, Jean Hiriart-Urruty begiztatu zuen zuzendaritzarako 1967an. "Begi ona ukana zuen Lafittek: Hiriart-Urrutyk bi urte aietan eman zion aldizkariari berritze bat, azalean eta barnean, ekarri ere bere luma ona. Lafitteren lumari ez diogu guk ezer kenduko. Bere denboran onek, ikastearen, irakurtzearen eta literatura osoa ezagutzearen bidez egina zuen iparraldeko euskararen itzuli osoa. Baina guk, eta ain ederki Hiriart-Urruty batek gure barnean geneukan, sortzetik naturalki".

Jean Hiriart-Urruty, ordea misiolari joan zen Afrikara, Lafitteren ondoan bi urte zuzendari egin ondotik. Berriz lagun bearretan zen Lafittek, Emile Larregana jo zuen orduan. "Aierrara erretoren izendatu ninduten urtea zen. Ark ezin onartuzko baldintza bat edo beste ezarri nion. Baina ez zuen etsi. Mixel Labaguerie deputatu zena eta euskaltzale suarrak bere leen andrea galdu zuenean zen. Ileten ondorik, Kanbon, berriz eldu zait Lafitte nire erantzunaren eskez. Ni ez bero. Orduan esan zuen nire biotza autsi zuen

itza: "Bon! Jarraikiko dugu beraz bakarrik... aal duguno!" Biaramonetan igorri nion nire baia, 1969ko abuztuaren ondar egunak zitezkeen".

Geroztik, amabost urteotan, or ari da Emile Larre "Herria" astekarian. Asierako urteetan Lafitte bera izan zuen lagun. "Berak nirekin lan egin eta ni utziz... lanarekin trebatzen. Zenbat aldiz ez diot nik kontseilua eskatu, artaz edo untaz eta berak erantzunik gabe utzi! Gero bai, agertuko ziren Lafitteren iritziak, lana egitean, baina manamendurik edo debekurik inoiz ez. Ez zen Lafitte manatzaile dagoen agintari bat, irakaslea zen".

Onelaxe elkarlanean, batu zituzten "emeki-emeki elkarrekin idazteko moduak, ortografia eta izkuntzak gure artean berdinduz; batuaren autua eginagatik ere, irakurlearengatik eta au ez galtzeko, bear zen erdibide bat aurkitu, pausuz pausu aurreratuz eta urteak bearco zirela jakinez".

"HERRIA": ADISKIDE ARTEKO EMAITZA

Lagun eta adiskide arteko lana da "Herria". Lafittek bere borondatez irakasten zuen Uztaritzen euskara. Bere txanpenez eta lanez eutsi zion euskarazko astekariari ere. Emile Larrek ere Irisarri eta Suhuskune errietako apaiz lanek uzten dioten arte-marte guztiak eskainiz burutzen du euskal aldizkaria.

"Emen ez da iñor lan ortatik bizi. Denek beste lanez kanpo egiten dugu kaseta. Laguntzaileak ere borondatezkoak dira: Haritschelhar, Goity, Dirassar, Itzaina, Oronoz, Kanblong, Xarriton eta beste. Eta baditugu errietako berrikerarik ere: berrogei bat, Euskal Herriatik eta Parise eta Ameriketaraino".

Onela egiten da iparraldeko euskaldunen astekaria. Eta "Ameriketan, Afrikan eta Asiaraino diren euskaldun askok "Herria" dute beren sorlekuarekiko lokarria eta atxikimendu aundia daukate. Ola badauzkagu maiz Kaliforniako euskaldun elgarretaratzeen berriak edo bederen bertso le-roak".

Laguntzaile guztiekiko esker ona agertzen du Emile Larrek. Baiña batez ere, Jean Lahargou zena, "lau urtez ukan dugun lagun paregabea". du gogoan. Lanetik erretiratu zenean bere burua eskaini zuen publizitatea biltzeko. "Urte bat edo biez gure diru zalantzak obetu zituen olaxe".

Baiña publizitatea bakarrik ez zuen bildu. Arpidetza bikoiztu edo bialakotu egin zuen. Eta talde bat sortu, "kolorez argazkiz, itxuraz eta mamiaz obetzeko" aitortzen du, esker onez, Emile Larrek.

DEIATIK ARTUA

BERTSOLARITZA

Bertsolaritza, bertsoak bapatean egitea da. Erri ba-koitzak molde eta teknika ezberdiñak daukoz.

Bertsolariek, abestutera doazen momentuan pentsatzen dabez gaiak eta zelan esan gaiak, onela, kreaziñoa eta interpretaziñoa batera erabilten dabez.

Baina bertsoan egitea ez dogu bakarrik, momentu baten pentsatu eta bertsoak abestutea jende-aurrian, beste bertsolaritza era bat bere, or dogu; bertso-papere-na ain zuzen, kasu onetan bertsolariak bertsoak idatzi egiten dauz.

BERTSOLARITZAREN SORLEKUA

Bertsolaritza, aintziñatik datorkigun oitura bat da.

Len orain baiño bertsoan geiago egiten zan, idazke-rea oindiño landu barik egoalako. Onek diñoskuna zera da: aozko literaturaren tradiziñoan sartuten jakula bertsolaritza.

Bertsolaritza noizkoa dan jakitea ez da errez.

Aintziñako errietan, eta ez bakarrik Euskadin, bertsoan asko jarduten zan, testu zaarrak erakusten deuskuenez.

Esaterako; Bibliako pasarte batzutan, Grezian eta Erroma klasikoan.

Grezian esaterako, artzai biren arteko liskarra izaten zanian, bertsoan nork geiago egiten ebien, desafihoa edo norgeiagooa burututeko.

Gaur eguneko kulturetan be, irauten dau kantu liriko era onek: Galizian, Britanian eta Mediterraneoko leku askotan.

Noiz asi zan esatea oso gatxa dogu, baiña uste da artzainen kulturakaz zer ikusia daukola. Ziurra ez dan arren, Neolitiko sasoi inguruan sortutako kultura dogu bertsogintza.

EUSKADIKO BERTSOLARITZAZ

XVIII. mendearen azkenerarte ez dogu ia berririk onetaz. Lenengo berria XIX. mendearen asikeran dogu eta or Fernando Amezketarra eta Iztueta doguz bertsolaririk ospetsuenak, lenengoa eskolatu-bakoa eta bigarrena osterara, eskoladuna. Eskoladuna edo eskolabakoa izateak garrantzi andia dauko bertsoak burututeko orduan.

Eskolabakoak:

– Ez dabie literatura idatzia kontuan artuten.

– Nekazari eta artzai giroko gaia eta espresaerara lotuta doaz, ez dabe urietan gertatuten diran gauzen gairik erabilten.

– Izkuntza errikoa daukie, ez kultoa, eta ez deutse ardura beste euskalkietako bertsozaleak ulertutea.

– Aberastasun poetikoa lortuteko, erderakadak sartuko dabez.

Euskadiko bertsogintzan, bost atal dagozala esan geinke:

I.– Erromantizismo aurea: (1800-1839): Sasoi onetan nekazari giroa dogu. Bertsolari geienak eskolabakoak dira eta euren artean desafio edo nor-geiagoka asko egiten dabez.

Atal onetako bertsolaririk ospetsuena Fernando Amezketarra dogu.

II.– Erromantizismoa: (1839-1876): Bertsolaritzaren urrezko aroa dogu, sasoi onetako gauzarik aipagarrienak karlistadak doguz.

Bertso-paperak indartuko dire eta euretan izkuntza era finkatuko da. Aapaldi landuak sortuko dire, bertso idatziaren eraginez, puntuen aberastasuna, doiñu bariak eta gaiak be bai. Talde onetan entzutetsuenak: Xenpelar, Etxahun, Iparragirre, Bilintx eta beste asko.

III.– Pizkunde aurea: (1876-1935): Politika eta gizarte maillan aldaketa andiak dagoz aro onetan: politikan foruak galduten doguz eta gizarte maillan industria eta kaletar giroa nagusituten jaku.

Aldaketa onekaz batera, bertsolaritzan bere, aldaketak jatorkuz, esaterako: bertso-paperak bardin jarraitu arren, lore-jokoak sortuten dirala, norgeiagokak zearo desagertuten dira; teknika aldetik elaboraziño geiago dago, eta gaiei buruz abertzaletasuna nagusituko jaku ardatz bezala. Sasoi onetakoak doguz: Txirrita, Pello Errota, Kepa Enbeita eta Mattin.

IV.– Pizkundera: (1935-1968): Arorik gatxena dala esan geinke, errepresio giro bat sortuten bait da.

Dana dala, bertsolaritzak indar andia artuten dau eta puntu askotan aldatuten da. Entzulegoa kaletarra izango da eta kultura andikoa.

Komunikabideak suspertuko dabe bertsolaritza, liburu eta diskak atereaz. Bertso saioak laburtu egingo dire eta gaien konposaketa zeatzagoa izango da.

Bertso-eskolak ugarituko dira, teknika barriak zabalduz.

Bertsolari entzutetsuenak: Basarri, Balentin Enbeita, Xenpun, Xalbador, Uztapide, etab...

V.- Bertsolaritza soziala (1968-1977): Gizartean demokrazi-naia dogu nagusi ezker muturreko taldeak indartzen asten dira, onegaz bertsolaritza barrero planteatutak jaku. Bertso jaialdiak ugaritu egiten dira, baiña bapatekotasuna psikologiaren aldetik motelduten asten da komunikabideen eragînez eta bertsolarien bertsotan jarduteko naturaltasuna galduten dabe.

Aldaketak puntu askotan ikus geinkez:

– Gaiak konprometigarriagoak izango dire eta politizatuagoak.

– Tekniketan neurri barriak sortuten dire eta doiñuak bere bai.

Izen batzuk esatekotan: Jon Lopategi, Xabier Amuriza, Jon Azpillaga, Jon Enbeita, Lazkao Txiki, Mañu-korta eta beste asko.

BAPATEKO BERTSOGINTZAREN TEKNIKAK

Lenengo ta bein gaia pentsatzen da eta onegaz bate-ra doiñua aukeratuten dabe.

Doiñuagaz batera, azken puntua bere pentsatu bear da, edo azken lerrokada pareta. Onela ba, atzekoz aurre-ra egiten dire bertsoak.

Azkenengo bertsoan gauzarik garrantzitsuena ager-tuten danez, lenengo pentsatzen da berau eta onen gai-nera egiten dire lerrokada guztiak.

Era eta itxura aldetik gauzarik itxurozoenak azken puntuan ipinten dira. Bertsolari bateri puntu onak era-bilteak itzalezko aberastasuna emoten deutso: puntu lu-zeak, au da, silaba bik baiño geiagok errimatuten dabe-nian, eta puntu semantikoak, kanpo semantiko bardiñe-ko berbak errimatuten dabenian.

Poto egiten da, silaba batek edo bik errimatuten da-benian, edo ta errima, atzizki bardiñez edo berba naiz aditz bardiñez osotuten danian. Poto egitea, txapelketa batian itzelezko okerra dogu.

Garrantzi andia dauko aapaldi erea aukeratuteak bere.

Aapaldi bakoitzak egitura bat eukiten dau eta lerro-kaden artean lotura bat.

Lotura bat egon daiten, errekurtsu batzuk dagoz, euren artean:

– Aapaldiaren erdian konjuziño bat edo berba bete-garri bat sartutea. Bertsolarien erabilten dabezen espre-sabideak, beste literatura sorketetan erabilten diren an-tzekoak dira: Metaforak, konparaziñoak, enumerazi-ñoak, kontrajarpenak, eta beste asko.

Estrofa motarik erabilienak aitatuko doguz orain:

Amarreko Nagusia:	Amarreko Txikia:	Zortziko Nagusia:	Zortziko Txikia:	Bederatzi Puntuakoa:
10	7	10	7	7
8A	6a	8A	6a	6a
10	7	10	7	7
8A	6a	8A	6a	5a
10	7	10	7	7
8A	6a	8A	6a	6a
10	7	10	7	7
8A	6a	8A	6a	6a
10	7			6a
8A	6a			6a
				6a
				6a
				7
				5a

Adibide moduan emen agertuten jatzuez neuk egin-dako bertso pare bat.

Bata 8'ko txikian eta bestea 8'ko nagusian:

UDABERRIA (8-ko nagusia)

Egina daukat aurtengo onetan
maitasun arloan plana.
Nesken aurrian izan oi dot
mutil jatorraren fama.
Eurei bertsoak patxadaz eiten
badadukat nik afana.
Aurtengoan be Udaberria
ortako eldu da nigana.

NIRE AITONA (8-ko txikia)

Aitonak eman eustan
makiña bat palu,
beretzat nintzelako
kirten eta alu,
dezentziaren alde
ainbat eskandalu.
Gaur egungo mundua
ikusiko balu!

BIBLIOGRAFIA:

Lekuona, J. M.^a, Aozko Euskal Literatura, Ed. Erein, Donostia 1982.

ASIER LEGARRETA

XVI' GARREN GIZALDIAN

Literatura aldetik ere merezi du gain-begitu bat amaseigarren gizaldiak, euskal literatura aldetik diot. Gizaldi ontara irixtean, inguruko izkuntzak –frantsesa ta gaztelania", batez ere, loratze ederrean zeuden. Ba-ditugu euskal zelaian ere bai, Etxepare ta Leizarraga, gure literaturari len-oiñarriak guztiz sendo jarri zizkiotenak.

Erdi-Aroa, frutu bikaiñak eman ondoren, itzaliz zijoan, eta beste aro argitsu bat zetorren. Aro berri onek askotariko gertakariak zituen oiñarri: orduantxe eratu zan geienbat giza-sail burgesa; ordukoak dira irarkola (inprenta) ta itxas-orratza; Bizantio'tik botatako jakintsu askok Italia'ra jo zuten; Petrarka'k gara artan asi zituen giz-ikasketak, humanismuaren azpi-arriak egokituz. Eta emendik sortu zan, noski, XVI'garren mende asieran Europa osora zabaldu zan Pizkunde eragiña, arte-bolada.

Mugimendu au literatura-zelaikoa zan batez ere. Baiña arte-lan guztietara zabaldu zitzaigun laster Elburu oni loturik zebillen besteak beste: Aintziñako griego ta erromarren jakintza ta literatura oiñarritzat arturik, gizonari ta munduari leen baiño inportantzi geiago ezarri. Gizonak, aurreko mendeetan Jainkoa zuen ardatz eta jokabide; orain ordea gizona bera du, arro ta burgoi, ardatz eta elburu: eztu gaiñetik lokarrikirik nai, berak dagi bere elburua izadiaren katepean. Gaur bezelako zerbaite gertatzen zan orduan ere.

Aro berri aren eragiñari esker, berebiziko aldaketak gertatu ziran jakintzan, politikan, erlijioan eta arte-gaietan. Literaturan, aurreko bi-deak zaiets utzirik, Grezia'ko eta Erroma'ko klasikuak artu ziran eredu. Ikaragarria noski Petrarka'k sartu zuen berriztea, onenak bait ditugu literaturako irudi txairuak, poesi-kerak bereziak, izadiari buruzko alderdiak kolore ederrez jaztea, maite-olerkiak eta giza-barnera jexitzea.

Izkuntzari dagokionez, aurrena latin klasikua erabili zuen Pizkundeak, txukun eta dotore apaindua; baiña laster, berezkoari berea zor zaiola-ta, latiña albora utzirik, bakoitza bere izkerari indar ematen aritu zan. Ondorioz, bultzada orri eskerrak, gorakada izugarria egin zuten erri-izkuntzak eta arte-gaiak.

Diogun Pizkundera etzan nazio guztietan garai berdiñez gertatu. Gure inguruko bi izkuntzak baiño ez aipatzeko, Frantzia'n 1515'garren urtean asi berri zan Pizkundera; gaztelar literatura, ordea, obeki zegoen Pizkundera asi zanerako: zerbaite aurreragokoak dira Hita'ko Artzipretea, Aiala gazteiztarra, Jorje Manrike ta abar.

1450'an agertu zan irarkolari zor diogu batez ere europar literaturaren zabaltzea. Euskalerrian ere ba-genduan XVI'garren menderako irarkola: Iruña'n ba-zan beintzat 1492'garren urterako. Trento'ko Eliz-Batzarrak idazteko ta irakurtzeko zaletasuna sortu zuen bazterretan: 1545'an asi zan Batzar au, eta Etxepare'ren liburu ere 1545'an argitatu zan.

Aipaturiko gertakuntza auen artekoa izan zan Protestanteen Berriztatzea ere, 1521'an, eta etzan txikia izan Euskalerrian bertan aien eragiña, Baxenabarra'n eta Zuberoa'n bereziki. Mugimendu berri onen seaska, Frantzia aldean alegia, bi euskal lurraldeok izan ziran. Naparru erreñua, 16-garren gizaldian, Benabarre ta Zuberoa'ko bazterretaraiño zabaltzen zan; baiña garai artan Espaiña'n errege zan Fernando katolikua Naparrua indarrez artu zuenean, bi lur-zati aiek beren mende gelditu ziran oraindik, au da, Juana Albret erregeñaren mende. Guztiz minduta gelditu zan erregeña au Naparruako aginpidea kendu ziote-nean, eta, bere katolikutasunari uko egin egiñaz, protestanteen alderidira igaro zan; ondoren, mende zeuzkan lur-aztar guzti aietan kalbinisten irakatsia zabaltzen alegiñak egin zituen, lenengo Biarne'n eta Baxenapan-ua'n eta gero Zuberoa'n. Ainbat naste ta iskanbil izan zuten. 1572'an il zan Juana, berrogeta lau urtekin.

Arrezkero bi Euskalerrri dauzkagu, mugaz onunzkoa ta mugaz andikoa. Literaturaz aiek, ots, prantses euskaldunak, eredu bete-aberatsagoak izan zituztenik ezin dezakegu uka, batez ere XVI eta XVII'garren mende barruan. Beti ere, guk eta aiek berezitasun berezi bat izan

dugu; au da, bat izanik ere, naikoa aldenduak bizi izan gera, azken urteotara arte.

Mugaz andik euskal literaturan, amaseigarren gizaldian diot, eredi bi ditu, oso goi ta gailen daudenak: Etxepare ta Leizarraga. Etxepare'k batez ere, inguruko literaturan loratze bikaiña ikusiz, alegiñak dagizki bere izkuntza ere zernaitarako gai egin nairik. Eta poema sail eder at biribildu ta argitara emanik mundu zabalera bialtzen dun esanez:

Heuskera,
ialgi adi kanpora!

Heuskara,
habil mundu guzira!

1.- BEÑAT ETXEPARE

Onengan dauzkagu euskal literatura idatziaren astapenak. Nai izan ezkero, aipatu ditzakegu emen aspaldi bateko bertsolariak, urte ta gizaldien laiño artean ezkututzen zaizkigunak, baita Erdi-Aroko aozko poesi aberatsa ere. Oietaz kanpo, ala ere, Etxepare dugu gure lendabiziko euskal idazle trebea. Pizkunde garai artan beste izkuntzetako literaturak, arnasa aundiko ta loratsu, gorantza dijoaztela ikusten du, eta euskera ere olaxe egin nairik, gorantz igo daiten, poema liburu bat osatze buruak eman dio. Besteak liburuak zabal dabilta: zergatik ez berea? Irarkola egunetan gaude, mende erdi bezela asmatua: irarkolara eramango du bere poema liburu. Eta olan euskera, bere izkuntza ere, Europa ko izkuntzen Berbizkundera sartuko da, aiekin dantzatu dadin. Eta Etxepare'k, asi eta ekin, biribilki, ziklo osoa betetzen du, Orixe'k dioskunez, euskal literaturan.

a) Bere bizitza zeaztasunak

Berri gutxi dakigu, zoritxarrez, aren bizitzeari buruz. Eta dakiguna ere bere poesi-liburutik atera genezakena da bakar-bakarrik. Latiñez ezarri zion izena bere liburuari: "Linguae Vasconum primitiae" (1545), au da, "Euskal leen-zituak". Onen azalean irakurri dezakegu-nez, 1545'an Eiheralarre'ko erretore zan, San Migel elizan; eta bertako poesi batetik atera dezakegu nun-edo-nun giltzapean egon zala; Paube'n egon zan ziurrik asko. Deus ez dakigu besterik, seguru beintzat; ez nun ta noiz jaio zan, ez noiz eta nun il zan, ez nortzuk izan ziran gurasoak, ez eta nun osatu zituen bere eliz-ikaskizunak.

Etxepare zintzoa zan gizaseme bezela, eta benetako anima-zaia izan zanik ere ezin dezakegu dudatan jarri: orrelakoa agertzen zaigu bere olerki-lanetan. Inioizka esan danez, berrogei ta bat urte zitualla egin zan apaiz, aurretik mundutar amets askok ustel irten ziolako. Ba liteke. Olako zerbaite ere agertzen zaigu bere olerkietan.

XVI'garren mendearen lenengoetan ba-zan zaratarik Naparrua, Bearne ta inguruetan, 1512'an, Espaiña'ko erregea Napar erreñuarekin jabetu zanetik batez ere; mugaz andik eta emendiko gorabera ta burruka latz askoren ondoren, Karlos V erregeak bere kasa bezela, Foix'ko etxearen esku utzi zituen Benaparroa ta inguruak. Garai artan ezarriak dira gaur ere zutik dauden Auñamendi edo Pirineu-mugak.

Urte latzak noski bertakoentzat, izango zan barne-garratzasunik. Baita eliz-gizonen artean ere. Etxepare garai artan Donibane-Garazi'ko bikario zan, eta Eiheralarre'ko erretore. Nork eta zergatik ziur ez dakigun arren, Paube'ra eraman zuten loturik, eta an euki zuten giltzapetua. Berak ala ere etzuen errudun ikusten bere burua; onela dio: "Erregeri dakidala nik eztizit faltatu".

Kezka bat zuen espetxean zegoelarik: izterbegiara, edo-ta iñoren oker-utsak nai-gaiztoz biltzen ari diranen kontrakoa. Gizonki azaltzen du, etsaien mende jausitakoan, zer gertatu oi dan ere. Giltzapean aurkitzen zala bere Espetxe-kantua, ederki egiña. Seigarren aapaldian onela negartzen zaigu:

Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura,
ene untsa eginak ere orai oro gaitz dira.
Haren menian ezpanengo, nik nukeien zuzena;
mirakulu banegi ere, orai ene ogena.

Ogetalau aapaldi edo estrofa ditu kantu giar onek: 18 lauko, 3 seiko, bosteko bat eta biko bat; au da: 102 bertso 15 silabako, 8/7.

b) Idaz-lana

Poesi-xorta bat degu Etxepare-ren lana, euskeraz idatzi ta irarkolan lenengoz emana. Idazpuru sotilla, "Euskal leen-zituak", –Linguae Vasconum Primitiae–. Latíñez noski, naiz-ta euskeraz emana izan barne-muiña oso-osorik. Etxepare'k, gaiñera, ba-zekian ondo ere bere liburua zala, bere olerki argitara emanak zirala, euskal literatura idatziaren lenbiziko aleak.

Bi eratako koplak antolatuta zizkigun: ainbat erlijioari buruzkoak eta beste ainbat kantatu ta atsegin artuz denbora pasatekoak. Au da, Etxepare'k batetik euskera jaso ta gailendu nai du ta bestetik, au erabilliz, Jainkoa otoiztu. Amabost edo amasei poesia ego koplak dauzka guztiz; eta azkenengo irurak, ots, espetxe-kantua ta euskerari omenezko biak kendu ezker, gaiñerako guztiak bi maitasun oso ez-berdin, Jainkozkoa ta gizatiarra, kantatzen dizkigu. Erljiozko poesiak 595 bertso dituzte, maitezkoak 408; giltzape egon zanekoak 102 bertso, Kontrapasak eta Sautrelak 59 bertso. Guztira: 1.159 bertso. Geienak 15 silabadun laukotan egin zituen, zortzigarren silaban ebakia edo geldiduea dutela.

Lenengoetan Jainkoa du kantagai, edo obeki, kristau dotriña azaltzen digu, egun aietan oitura zanez, aapaldi borobilletan. Jainkoak egiña da gizona, ez izadiak, eta Aren zerbitzuan jardun bearra du, batez ere. Ark ez du morroi nagirik gura. Ona berak ederki:

Ezein iaunek ezta nahi mutil gaixtoa eduki,
ez pagatu soldatarik zerbitzatu gabarik.

Jangoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongí egin gabarik.

Eta kristauak, mutil gaixto bilakatu ez dadin, egunero zer egin bear duen darakusgu: goizean, arratsean, naiz elizan naiz illerrian, nolako otoitzez jokatu bear duen Jainkoarekin, Andre Mariarekin eta Santuekin, fedezko egia eta Jainkoaren lege-aginduak ere gogotan jarriaz.

Erljiozko neurtitzotan, askok uste duenez, **Iudizio jenerala** dugu bikaiñenik. Izan ere, bizi-bizi pintatzen digu azken-epaia. Bi tokitan daude giza-semeak, zeruan edo inpernuan, saridun edo sarigabe. Igesbiderik ez tun epai latz ostein, zer zori dagokio munduari? Etxepare'k ederto margozten du au ere. Eta amaian otoitz gartsu bat zuzentzen dio Andre Mariari, 15 aapalditan. Labur: poema errotsua. Bertsoaren batzuk ba-dute **Dies irae ta Stabat Mater**'en antza. Baiña, seguru aski, Etxepare etzan ibilliko iñoren pentsamentu ta sentipen billa bere lanak osatzeko.

Amar dira giza-maitasunari eskeiñiak: **Amorosen gaztigua, Emazten fabore, Ezkonduien koplak, Amoros sekretuki dena, Amoroson pertitzia, Amoros jelosia, Potaren galdatzia, Amorez errekeritzia, Amoroson disputa ta Amore gogorraren despita.**

Abesten duena ezta noski aragira garamazkin lera, griña, irritsa; ezta ondorioz letorkigun samin erreza ere. Bein edo bein, bear bada, bere gaztaroko irakinaldiak arrotzen ditu. Emazteen atde agertzen zaizu beti, gizonaren maite-su kaskarra zigor-biraz zaparrasturik. Ezta nai iñork aiengatik gaizki esan dezan. Txasta itzazue berse auk:

Andren gaitz-erraike orok behar luke pentsatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sortu.

Ama emazte luien ala ez, nahi nuke galdatu;
amagatik andre oro behar luke goratu.

Irudimen sutsuz eioa dugu **Ezkonduen koplak** deritzana. Moral-esiak urratu naiez dabilzanen kontrakoa. **Amoros sekretuki dena**, ordea, gaztez biotza artegarazi zion maite-sua dabilkio, antza danez, aize-motots-bizi. Era ontakoak dira besteak ere, giza-maitakeria ertz guztietatik begiratuta biziki kontatzen dutenak. Argia ta ikasia ematen du Etxepare'k bere koplak guztietan, maitasunezko poema ontan betez ere. Dela Jainko-maitasuna, dela giza-maitakeria, egiaz adierazten du beti barruan daraman sentipena, ezertxo ere estaldu gabe. Auxe ez al da egiazko olerkaria izatea?

Azkenez, gorago aipaturiko espetxe-kantuz gaiñera, **kontrapasa** ta **Sautrela** datoz, dantza parekoak biok, arin bezain dardaratiak. Kanpora atera nai du euskera. Garazi ra! Mundu zabalera!

Bertze jendek uste suten enganatu zirela.
ezin skriba zateien; Heuskara,
orai dute phorogatu ialgi adi mundura!

Ez degu poeta badaezpadakoa Etxepare, gaur askotxok airtortzen dutenez, jasekoa, bipilla ta errimeza baizik. Eta ez dezu gutxi, olerki bideak, euskal arloan beintzat, berak iriki zizkigun-eta. Darabilen gaia arrunta zan sasoi aretan. Neurriari gagozkiola ezta ugaria, au da, berdinxea darabil ia poema guztietan: 8/7. Diptibgijak eta, auzoko izkuntzetan bezela darabilzki. Ba liteke erri-kantetatik artua izatea geien darabilen neurkera. Labur: eragin sendoko poeta degu, olerkari aundia.

Bukatzeke, esan dezagun Aitzol'ekim "Euskal Pizkundeko olerkari dugu Etxepare. Guk, ordea, erdi aitzurik euki dugu azken urteotararte. Euskalerrriak ere, zein etxeko zein kanpoko, etzuten goraiatu euskera arnas berriz jantzi zuelako, linguistikak erdi itsututa baizik. Begoz, ba, aurrerantzean merezi duten maillan aren oler-arnasa ta jantzi zaharra".

2.– JOANES LEIZARRAGA

Ona beste erraldoi bat euskal literaturaren asiera-asieran; Etxepare olerkiz, eta Leizarraga prosa oparotsuan. Joana Albret erregeiñak aginduta, **Testamentu Berria** euskeraz jarri zigun, 1571'an argitara emana. Orixe'k onela: "Gramatikoak euskal aditz edo verbo'ren ugariera Leizarraga'n earki dezakete".

Bakan bezeta agertzen zaigu XVI'garren gizaldian, mendi garai baten antzera. Berak eman zion, egia esan, euskal poesiari asiera; berak urratu zituen bide berriak, itzetan, aditzean, esaera ta euskal jokera jatorrean. Erregeiñak aginduz egiten lan, eta ezin iñolaz ere edoze-langoa izan, ederra ta txukuna baizik. "Jainkoari, erregeiñari ta euskal erriari zerbitzu egin naiez zebillen Leizarraga, eta lanak ere alakoxeak atera zitzaizkion: andik eta emendik guztiz onduak, osoak, umotuak.

a) Gizona

Idazle dan aldetik Leizarraga interesgarri ba da, gizon maillatik ez degu gutxiago. Aren bizitz-berririk, ala ere, oso gutxi dakigu, itzul-lanetan asi zan arte beñik bein; Beraskoitze Baxenabarre'ko erritxu bat da, eta ementze jaio gure idazle bikaiña, alan ere oindio ez dagoku noiz munduratu zan, ez nortzuk ziran bere gurasoak, ez noiz il zan; ez dakigu, gaiñera, noiz eta nun burutu zitun bere eliz-ikaskizunak. Apaiza zan, itxura danez, Joana Albret Naparroako erregeiñak, 1559'an, katoliku izatea utzi ta kalbindarren alderdia artu zuenean. Apaiz katolikua izan zan aurretik, baiña noiz apaiztua ta nun apaiz egon zan ez dakigu oraindik, au bai ba-dakigu, Testamentu itzultzeko Paube'ra deitu ziotenean, Lapurdi'ko erriren bateko erretore zala.

1564-65 bitartean osatu zuen itzulpena. 1567'an Labastida'ra, protestante errira, bialdu zuten artzai. 1598'an, Labastida'n jarraitzen du oraindio; 1501'an aipatzen dan azkenengoz aren iena, beraz or inguruan il zan, esan bearko.

b) Euskal lana

Joana Albret'en asmoa zan Euskalerrria erlijio berriz jatzeta, eta oratarako jendeari euskal liburuak eman bear. Leizarraga'k ondo zekien euskeraz; erregeiñak ba-zuen onen izenaren otsa eta Bearne'ra eraman zuen, lau Ebanjelioak eta beste esku-liburuak euskerara itzuli zitza. Etzuen, egia esan, langille makala bereganatu. Jakintsua ez-ezik liburu-zalea ere ba-zan beraskoiztarra; euskeraren muiña sakonki ezagutzen zuena.

Iru liburu utzi zizkigun Leizarraga'k: 1) **Gure Jaunaren Testamentu Berria** (Rochella, 1571); 2) **Kalendrera** (Rochella, 1571) ta 3) **ABC edo Kristinoen Instrukzioea** (Rochella, 1571). Bigarrena Egutegi bat da, ta irugarrena kristau on batek jakin bear duena dakarren liburu interesgarria.

Testamentu Berria ez dago gaizki itzulia. Batzuk goi-goiraño jaso dute beraskoiztarraren lana, beste batzuk ez ainbeste. Orxe'k onela: "Ba zekien zenbait itz eta esaera obeki esan zitezkeela euskeraz, baino ala ere lardaska samar egina da euskeratze ori; latíñean dagon bezalatsu utzia... Leizarraga'k, beraz, euskal aditza ugaria emen digu, itzulketa lardaska, izketa erraza, errazegia, ta idaztankera ez gisakoa". Beste batzuk diote ua izan zala idatzi zuen izkuntza tinkarazi zuena, eta oro ar, erraldoi bakar bat dugula Leizarraga euskal literaturan, ez aurrekorik ez ondorengorik gabea.

IRUROGEI URTE ETA UGER IKASTEN

Iñoz entzuten dogu lekaideak eta abadeak emakumeen arerio edo "misojino"ak garala.


Baiña ori ez da egia. Eurak be lenengo euren ama, arrebak, llobak eta lengusiñak maite izaten dabez. Eta gero andren artean diran balioko gauzak ezagutzen eta agertzen dakie.

Ona emen Durango'ko andra bat, ugerkari trebea, irurogei urtekoa zala uger ikasi ebana: Ruiz Egiño'tar Herminia.

Orain 75 urtekoa da eta arrankari baten antzera egiten dau uger. Bizkai'ko uri eder onetan ugertegira edo buztialdietara egunero joaten da. Bere lagun eta aolkari dan Aitor Barrenetxea'ren bitartez eta laguntzaz Euzkadi'ko Txapelketara eguna danean aurkezteko gogoia dauka.

Kirol onek ez dautso galerazoten bere joskille-bizibideari jarraitzea. Eredu jatorrak marrazten dauz.

Uste izango dozue, bear ba'da, andra kementsu ta kirol-zale au neskazarra dala. Ez orixe. Egiño'tar Herminia lau semeren ama da eta guztiz bederatzi illoba daukoz oraingoz.



Egiño'tar Herminia 75 urteko ugerlari trebea.

– Noiz, ze une, garai edo aldian erabagi dozu uger ikastea?

– Nik beti bekaitzez, bekaitz onagaz esan gura dot, begiratu dodaz uger dakienak, baiña beti bildur itzala izan dautsat urari. Irurogei urte lepoan dodazela, ez dakit ze zio edo garaian, erabagia artuta, bildurra kendu eta jaurtiz, ikasi dot uger egiten.

– Zeure buruaren eritxi onak eroan zaitu ikastaldietara uger ikasteko eta trebetasun ori lortzeko?

– Ez. Ori baiño ohea izan da nitzat ekiteko eta ekiñean irauteko sendotasuna, beti eten barik buztialdietara eta ugertegira joateko guraria. Orretan Ana neure lagunak laguntzen daust asko akatsak kentzen. Norberaren buruaren eritxiak be bultzatzen nau geroago ta ugerlari ohea izatera.

– Ez dozu uste zure itxura ederra uger egiteak emoten dautzula?

– Ez dozu uste zure itxura ederra uger egiteak emoten dautzula?

– Ez dakit ba! Ni beti berez eraginkorra izan naz. Orrexegaitik nire kirol-zaletasun onetara ekarri dodaz neure illobak. Gontzalo, 13 urteko nire illobea Euzkadi' ko txapeldun izatera eldu da. Neuk ugerlari izateko eragin dautsadalako.

LETONA' K

GURE ARAZOAK

Barriro be, euskerari begira biurtzean, orain gitxi dala entzundako eta ikusitakoakaz bat nagola esan bearrean nago. Guzurra irudi-arren, katalandar gizaki baten agoren bidez entzundakoa dalako da gainera arrigarriago.

Katalandar filologo bat zan bera, gizona eta eratutako mai-inguru edo alkarrizketa baten, Espainia'ren inguruko izkuntzai buruz mintzatzen zan. Badogula, –esan eban– euskaldunok izkuntza berezi bat, euskera "unico", bere esanez, ez bakarrik Espainian, baita Europa guztian be. Danok dakigula uste dot "unico" orren zentzua eta aintzaldugurean esan ebalasango ba'neu ez neuke egiasango. Berak, filologo onek, benetan olan dalako, normaltasun guztiz azaldu zan.

Au, Espainia'ko Telebistan, bigarren katean, goizetako "La aventura del saber" egitarauan, zezeillako 16'an entzun eta ikusia izan zan. Beste gai batzuren artean, bere ustez katalandar izkuntza beste gastelar-katalandar dialekto bat biurtu daitekean arriskuan egoala esan eban. Euskalerrian ostera, ezetz, euskereak ez ebalas orren arriskurik. Euskalerriak ba-ebazala bere euskalkiak eta edozeinagaz baliatu leitekela.

Moderatzaillea asi zan orduan (birritan edo asi zan aitatzen) "batua" izkuntza be ba egoala Euskalerrian. Berak, katalandar filologo onek ez eutson oneri jaramonik egin eta bereari ekin eutson, ez eukala Euskalerriak, euren bezala (katalandar bezela) leen esandakoaren arriskurik, esaten. Gainera euskaldunak ondo eginda ebazela gauzak izkuntzaren arloan. Eta asi zan azaltzen zelan geunkazan A, B eta D maillak eratuta. Etzekiala berak zelan egozan maillak antolatuta baiña zelan edo alan, ori euskaldunen ardurea zala.

Eta emen amaitu zan euskaldunen izkuntzari buruzko auzia.

Beste andra bat be bertan egoan, Baleares'ko Izkuntza Saila'ren Ordezkarria edo Arduraduna. Beste gai batzuren artean, disglosia etabar. Baleares'en jentea berba egitean kanpotarren aurrean ixildu edo erderaz egiten asten zala, esan eban. Ori

entzutean, nik be, Euskalerrian ber-bera jazoten zala pentsatu neban nire kolkorako.

Balentzian gertatzen danaz etziran mintzatu, ezta Galiziakorik aitatu bere ez eben egin, iñor etzegoalako edo, beintzat ez eben ezer azaldu lurralde bi onei buruz.

Katalandar filologo onek, izkuntzoi buruz, jatorrizkoak izan arren, berezkoak, Espainia'ko laterriagaitik indarrez eta izkilluz kenduak izan zirala, esan eban.

Dialektoak aitatu ebazanean, bere kezka, Kataluña'ko konterriataz izan zan, ba ebalako katalandar izkuntzak espainiar dialekto motaren bat sortzeko edo biurtzeko arriskua, katalandar-espainiar naaste bateko izkuntza erabilteagaitik.

Onelakoak entzutean, esango neuke atsegin izan jatala ikusi eta entzun aal izatea, kanpotar batek zelan orren argi ikusten eta ulertzen eban gure izkuntz-arazoa, eurenkaz, ez konparatu baiña guztiz borondate onez azaldu egitea, batezbe gu, bitartean geure-artean gauzak konpondu eziñik, alkarregaz ulertu be, nekez edo ezin, onetan eta beste arazo askotan ari garenean.

Eta parkatu egin bear daustazue izenak ezin emoteagaitik orren garrantzi aundirik ez neutsan emon egitarauari, kontixu alkarrizketa arrunt bat, besterik ez zalakoan entzutea jarri nintzan-eta. Geroago konturatu nintzan, eta otu jatan gure ardurea be bazala izkuntzarako dagozan eritxiak jakitea, ez bakarrik geurean, baita kanpoan be guri begira zeozertxuk egon leitekezalako, eta guk uste dogun baiño geiago, bear ba'da.

LARRONDO

ANDRA ENTZUTESU BAT

Bilbao'n, Deustu'ko Ikastetxe Nagusian dabil.

Bere izena Karmen Bernabe. España'ko Teologuen Alkartearen Sortzailleetarikoa eta Euzkadi'ko Idazteun-Lagundian kideko da.

Bere maixu-lana "Maria Magdalena lenengo kristiñauen artean" izan zan. Era orain "Andrea Biblia"n deritxon idazti bat gertatzen dabil.

Itaunketa bat egin eutsoen, eta ona emen emon ebazan erantzunak.

– Lekaideen artean, oituraz, andra-areriokeria izaten zan. Euren erakundeetako etxeetara etorten ziranak gaiso orren griñadun biurtzen ziran.

– Len, antxiña, batez be lagundi onein asieran, ba-leiteke. Baiña orain lekaidetik geienak zentzundunak dira eta emoten diran ezi-legeak bear diranak; artzen dabezan egitamu ta ezibideko arauak gizabidean onartuak dira eta oraingo eleiz-jakitunak baieztu egiten dabez.

– Biblia itzez itz azaltzeak ez dauz biurtzen entzuleak "ardi-talde" ta nagusien aldeko?

– Gauza guztietan eta erlejiño-gaietan batez be, eziketa neurriduna bear dogu; gizataldeak izan daitezela erantzukizuna, adimena daukenak, elduak, gauzak ondoen azaltzen dakienak.

– Jaungoikoa gizonezkoa da?

– Ori oldoztu, buruan erabilli, berbaz eta egitez azaldu da sartaldeko kultura edo jakintzan eta jakintza au gizonezkoena izan da. Orrexegaitik izan dira gizonezkoak Jaungoikoaren irudiak, baiña Jaungoikoa neurribakoa ta azkenbakoa da eta

ikusmen eta alde guztietatik almenez eta indarrez beterik dago. "Neurtu-eziña dan edertasunagaz igaro zan oian edo baso onetatik, begiratu baiño ez dau egin eta bere jantzi zoragarriz jantzita itzi dau mundua". Olerki au andrazko batek egiña dala dirudi baiña bizitza latza eroian eta mistikua zan Kurutzeko Juan gizonak egiña da.

Kalkuta'ko Teresa Amak bere seksua aldatuko ba'leu, Jesukristo'ren antza eukiko leuke. Baiña aldatu barik be ba-dauko antz ori. Jesukristo'ren antza emoten dauana ez da gizonezkoa izatea...

– Askatasunaren teolojiak ez dau orain gaurkotasunik?

– Beti izan dauz askatasun, zuzentasun eta ba-kearen gose ta egarriak. Alegiñak egin dauz, Barri Onaren aldetik kondairari erantzuna emoteko eta oraindiño be indardun eta zutunik dago, baiña arazo barriak agertzen jakoz.

LETONA' K



IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

AMIAMOKO EDO ZIGOÑIA ORDUÑA'N

Ez dozue iñoz entzun, len, antxiña ez dala, 1951n. urtera arte, amiamokoak deritxen egazti aundiak etorten zirala, Bizkaian uri izena daroan erri bakarrera, Orduña'ra?

Azkenengo amiamokoen edo zigoñien abia aize indartsu batek bota eban eta auzo aretako talde ekin-tzaille batek, 30 urte dirala, euren eskuakaz egindako abi-antzeko bat ipiñi eban Udaletxeko torrearen gailurrean eta agertu dira barrero esandako txori aundiok.

Orain, zigoñia-zaleak beste abi bardin bat egin gura dabe bidalgo-etxeko gallurraren gaiñean.

Jakingarria da egin daben amiamoko edo zigoñia-abia zelakoa dan: Biribilla, metro biko ardatza dauana, 90 kiloko astutasuna, sarats, basuntz, txopo ta ola-koz eundua, burdin-ariz sendotuta.

Amiamokoak ekarteko, dana dago oillo-korotzez nastauta.

Ori egin gura izan eben San Juan Eleizako torrean, baiña Bizkai'ko Gotzaiñak ez eutsen baimenik emon, arduraz barriztaua zan eta 30 milloi pezeta kosta zan konponketa zapuztu ez egien.

* * *

Baiña Larrieta ta Fernandez'tar Felix'ek bekokia illundu eta auxe esan eban: `Bildur naz abi aundi ori lar beeregi geratuko ete dan. Txori itzalezko aundi orreik ikuspegi aundia daukon tokia nai dabe eta ez dau nai izaten eurak baiño gorago iñor egoterik. Non ikusi da amiamokoak abia egiten dabela gizonak bizi diran lekuetan?

35 urtean Bilbao'ko Etxebarria altzairu olan lan eginda gero, zartzaro aurreratua artuta, bere buru-ausstea Amiamokoak edo zigoñak Orduña'ra etorri daitezela izan da.

"Zeregin au kirol eta jolas baten antzera artu dot" diño berak.

Eskerrak bere alegiñari eta beste iru neke-laguneri, Udaletxeko gaillurra zigoña zuri bikote batek apainduta agertzen da.

Ainbeste balio jakon eskuz egindako abira, azkenez, joan dan urterillean sartu da zigoñea. Lenengo, arantz, onantz, an, emen, ibilli da eta azkenean etxun da.



Ordisña Udaletxearen ganean, illabete edo bi dirala, zigoñia'k bikote abia egiten.

Egun batzuk an igaro ondoren, goizalde baten, ikaragarriko ego luzeak zabaldua, Orduña erriko enparantza-gaiñean agur egin eban eta zeru-muga urdiñetik aldendu zan.

Baiña ez galdu itxaropena!

Gerotxuago barrero agertu zan eta orain, zorionez, lagun bategaz, bikotea eginda, iraupena izan daiten.

Itxaropen ori ez da Orduña'rako bakarrik! Bizkai eta Euzkadi osorako be bai!

EGILUZE

JAKINGARRIAK

NOIZ SORTUA?

Euskeraren noiztik litekenik, inortxok ez daki. Ori bai, ezagutzen diran izkuntzatan, zaafena litekenik ezin uka, alaxen adierazten baitigute: a izko tresnaen izen sailak eta afixioak, leizezulotan bizi zan eta afia eta aga bakafik ezagutzen zituan eiztari a en garaia baita. Kistoz aufetik, amalau bat mila urtez aufekoa bai...

ASTE

Iru eguneko asterik ez du ezagutu izkuntzedestiak; Euskerak ordea bai, astelen edo eguastelena, eguasteartea eta eguazkena, asteazkena. Aste motx oen aztarna, oroimenetik ere ioan zaio gizonari; Euskera zaa ak bakafa dauka gomutan.

URTE-ALDIAK

Nabarmena da benetan, Euskerak urtemugak nola izendatzen dituan; udabefi, uda, udazkena eta negu; lanerako garaiak gogoratzen dizkigu, ez noski gaur goizekoak. Ikusten zituanez, izendatzen ditu: uralde be ia, bedatsarua, uafak, udate beroan; uraldeen azkena, udo doan eta be-egu, laifioegun, elur ta izozte aroa, negutean.

SENDI-IZENAK

Astarloa'ren antzera, irudikerietan murgiltzeko bildufik ez ba'geneza, Euskeraren itzik etxekoena, aita, ama, ema,

alaba, afeba, sen, seme, senar eta beste askori, zarsunda nabarmena dariotela nornai iantzi liteke, Itunza eko Asierako leen izenak, Adan, Eba, Sen, Abraam, Abel eta abar, ludiaren asierakoak gogoratzen baitizkigute.

BERABEARRA

Aldiaren ilunbean galdutako ufezko garai nara ta zabal-kunde aundi aren ondoren, noiz asi ote zan Euskera eguneroko berabide ikaragafi ta ilgafi ontan? Iankoa'k daki noski, mendeak eta mendeak baitzeramazkian luferemu zabalena galduaz ez eze, izkuntzaren ufezko itzik zaa enak ere, zeraman bide luzearen barna, arekarte baztafetan galduaz. Zenbat altxor bikain galdu ote da dagoneko!

EGINBEARRAK EGIN BARIK

Beafezko ikastolak eta ikastetxeak ideki zitezkean, etziran iriki; efiaren iakintzarako zabaldu nai izan zitu, eragotzi egin zitzaion eta idaztiak argitaratzen asi ziranean, efiak etzekizkian irakurtzen.

INGURUKOAK

Inguruko Latefi aundi ta izkuntza indartsuak ere, beti zintzur egiteko zorian daukate Euskera eta erabat ito ez ba'dute eta orain a ituta xuxperten ikusten ba'dugu, Kardaberatz'ek esan zuan bezela, "Euskera'k burua altxa dezan, Iankoa'k nai dualako izango da.

ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK

INDARTU TA ZABALDU EGIZU "ZER"

"ZER"en arpedunok maite dogu "ZER" eta gainera, Bizkai'ko euskereak sendo iraun dagian bear-bearrezkoa dala uste dogu.

Milla ta berreun inguru gara gaur Bizkaia'n, euskalerrri osoan eta erbestean "ZER" artzen dogunak. Guztiok alkartzen gara famili baten antzera.

Idazleak doan idazten dabe eta guztion artean egiten dogun lana aundia da.

Egia esan idazle geiago bear doguz. Esaterako eguneroko albisteak, izparringietan agertu diranak eurak, labur-labur idatziko dauzan bat, munduko jazoerak egokiro aztertuko dauzan bat, Euskalerrriko albisteak alderdikierietara sartu barik aztertuko dauzan bat, illero ipuin bat idatziko dauana, eta olakoak... Zergaitik ez dozu artzen olako arlo bat?

"ZER"en beste bear-izan bat zabalkundea da. Irakurle geiago bear doguz, bai Bilbao'n eta bai errietan. Ez da ain gatxa arpedunak lortzea, baiña orretarako errietara joan bear da eta guk astirik ez. Zuk, zeure errian edo giroan lortu egizkuz arpedunak. Eskerrrik asko!

Eta agertu zuen gurariak: Zeintzuk gai nai zendukez "ZER"en? Zuek esan eta aleginduko gara gurari orreik beteten.

OLAZAR'TAR MARTIN
ZUZENDARIAK

ZUZENDU ETA GARBITU

EUSKERAZALEOK:

Guk daukagun izkuntzak egiten gaitu beste laterri guztietatik ezbaridiñak eta oni eutsirik lortu genezake menperatasunetik garaile urtetzea, auxe da egi borobil borobilla, naikoa degu gure Aberri barruan euskera galdurik, Araba eta Nafarroan zear gertatzen dana ikustea.

Ori orrela delarik, zeren zai gaude gure Amaren seme leial eta euskotar zintzo lez jardutzeko?

Izkuntzaren barnean ez da bear alderdikiderik, "ba gera edo ez gera", ez dago beste biderik.

Azkenengo urte oneitan euskeraz ikasten dabilzanak, dexente dira. Euskera danak maite dutelako ote da? Orrela balitz, pozgarria litzateke, baña auetatik asko dira ogibidea lortzearren, eta orrela izan arren, ez nuke zer esanik... Baña oietatik bein lantokia eta bizibidea lortu ondorenean, zenbaitek azaltzen du esker ona euskerarentzat?

Ikusi besterik ez degu Jaurlaritzaren agindupean dauden Erakunde guztietan zelako mintzaira darabilen.

Orrez gain zoritxarrez mintzatzera noa.

Lenengoz azaldu nai nuke ez naizela gai onetaz oso trebea bañan nere Aberri txit polita (gaurko egunez

zearo kutsatua) eta bera bezain zaarra daukagun izkuntza maite ditut eta orrexegaitik ditut naigabeak, poztasunak baño ugariago. Ez daukat ixilik egoterik.

Euskeraren alorrean dabilzanak eta orren bitartez bizibidea dutenak lirake gai onetan agintaritzaz bear lutekenak, okerkeriak zuzendu arazteko, baña oietan ixiltasuna besterik ez da nabarmentzen sarritan eta orra emen nire azalpena.

Jaurlaritzaz, Aldundi, Udaletxe eta beste erabateko iragarkietan, Izparringi, astekari aldizkari eta baita zapizko agirietan, idazleek, zaindu bearrean zerate euskera garbia erabiltzea. Banaka batzuek oso garbi eta txukun azaltzen dituzte beren esanaik, nere eskerrik pozgarrienak oiei, oien bitartez alaitasunean irakurriz, ikasi egiten degu.

Baña geien bat eta euskera ondo dakitenak izan arren, zearo naspildu eta kutsatua darabille: ez da berdiña elkar-izketan ondo ez dakianak erderakadak erabiltzea, bañan idazkeran erriari egiñez, zeatzago eta ondo landuaz eragin bear litzake, ondo eraginda ekoizpen ondorean orrelakoa lortuko da.

Euskera izkuntza bat degu, beste edozein izkuntzak lez, euskalki desberdinak dituana baña ez da beste izkuntza baten euskalkia, sarritan azaltzen danez.

Ona emen izparringian azalduetako arribitxi batzuk:

Gaztelera	Azalduak	Euskeraz
Universidad	Unibertsitatea	Ikastetxe Nagusia
Vicerector	Errektorordetza	Zuzendari Ordea
Orquesta Sinfónica	Orkestra Sinfonikoa	Ereskintalde Olsezt
Convenio	Komenioa	Itunketa
Informacion	Informazioa	Txosten Emaizta
Interesados	Interesatuak	Obarizaleak
Protagonista	Protagonista	Lenantzezlari
Papelera (Fabrica)	Papelera	Ingi Ola
Del Espacio	Espaziotik	Utzgunetik
Consultar	Kontsultatzea	Aolku eskatzea
Sobre encantamientos	Enkantementueri buruz	Zoragarriketari buruz
Entre las naciones mas modernas	Nazioarte modernoan artean	Enderriarte gaur gaurkoan artean
Temperamento dramático	Tenperamendu dramatiko	Ardura latzgarria
Clasico del Hipodromo	Klasikoaren Hipodromoan	Laster-zaldi zelaian eredu
Maitasunez idatzi dezagun, zabarkeriak alde batera utzirik.		

ARTOLAZABAL'TAR ILARI
"ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK"

AGUR TXOMIN AITARI

Danok ondo baiño obeto dakigu egunen baten il bear izango doguna. Biar zein urte batzuk barru. Ori eta guzti be, ez dogu orregaz konturatu egin gura. Eta eltzen jakunean, bai norberari zein senide naiz adiskideei orduan geureganatzen dogu eriotzaren benetako esangurea.

Ori jazo jatan niri, Iakakortaxarena tar Txomin Aitaren eriotzaren barri emon eustenean. Sentipen illun eta mingotsa, baiña nai-ta naiez onartu bearrekoa dana.

Zer esan neiken Txomin Aitari buruz? Egia esatekotan, Txomin Aita zanagaz birritan baiño ez nintzan izan. Baiña, naikoa izan jatazan aukera bi orreik bere kristautasun zintzoa eta euskerearenganako maitasuna igarri eta argi ikusi al izateko.

Gorabera asko izan zituan bere bizitzan. Batez be, Españako guda anker ortan. Iltekotan ibilli zan eta. Orren ostean, atzerrira joan jakun Txomin Aita eta berrogeta bost urte igaro ebazan Mones Cazon izeneko erritxoan. Argentinan. Urte guzti areitan, Euskalerritik ain urrin egon arren, ez eban iñoz bere euskal sen sakona galdu. Alderantziz. baiño.

Argentinako erri aretan bizi zala, eten barik eta kementsu ekin eutsan geure jakintza eta biziera zabaltzeari. Bai euskera arloan eta bai bertan bizi ziran euskaldunen alde.

Euskera eroian bere biotzean gure Txomin Aitak. Beti. Lan bikaiñak egin zituan euskerearen mesedean. Eta adibide legez or doguz, alde batetik "Martin Fierro" lana "Matxin Burdin" euskeratuta. Eta bestetik, Erlezaintzari buruz egiñiko lan erraldoi ori. Mones Cazon erria ospetsu egin ebana. Eta beste lan asko egin ebazan geure mintzaera ederrez.

Bestetik. Argentinan euskaldun asko bizi ziran. Eta gure Txomin Aitak eurei laguntzearren, Euskal Etxeak sortzen lagundu eban eta gaur egun Euskal Etxe batzuk aurkitzen doguz errialde ortik zear.

Ikusten dogun lez, urrin ibilli, bai; baiña bere Euskalerrri maitea aitzu barik. Ori, ezelan be, ez!

Beste aldetik be, bere kristautasun aundia aitatu bear. Monez Cazon izeneko erritxo artan egindakoa ez da gauza gitxi. Bertako bizilagunen alde gauza asko eta onak egin zitum gure berastegitarrak. Ez da arritzekoa. beraz, bertakoak Txomin Aita biotzean eroatea. Maitasun utsa zan-eta.

Eta, azkenez, egun batean, itzuli jakun bere jaioterria dan Berastegira. Ez pentsatu, baiña, atsedan billa etorri zanik. Ezelan be ez!

Bere izakerari zintzo izanez, euskerearen alde jarraitu eban lanean. Bai euskal liburuak argitalduten, bai erderatik euskerara lan ugari itzultzen edo-ta diru asko emoten euskerearen onerako.

Gogoratzen dot nik, igazko Gabonillan bere Berastegiko etxera joan nintzanean zelango abegi edo arrera bikaiña egin eustan. Zelako adorez esaten eustan euskerearen alde lan egiteko. Askok maitatzen eban euskera. Eta ori dala-ta, kezka aundiz ikusten eban gaur egun gure izkuntzak daroan bidea.

Azkenez. joan dan Epailleko 25an, gaixoaldi batek jota. beste mundura joan jakun euskaldun eta kristau zintzo eta neka-eziñ au.

Bere eriotzagaz, bera lako gizon jakintsu asko bear dauzan gure euskereak galera aundi bat izan dau, zalantza barik.

Bitartean, bera ezagutzeko zoria izan genduanok, jarraipena emon egin bear dautsagu bere elburuari: Euskera. ERRI-EUSKERA, aberastu eta zabaltzea Euskal-Errian zear.

Orixe izango litzake, izan be, gure Txomin Aitari egin giñeion oparirik onena.

Ainbat eta ainbat urtetan lanean jo-ta-ke ibilli ostean eldu jako atsedan-ordua. Ondo merezia, benetan.

Goian bego, betiko zorionean. Eta Egun Aundi-rarte.

MALAX-ETXEBARRIA'TAR JON

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA